


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak %1,5 gehitu ziren 2019ko abuztuan

2019ko lehen zortzi hiletan %2,0ko hazkundera gertatu da

Eustaten arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2019ko abuztuan %1,5eko urte arteko gehikuntza eduki dute Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, prezio finkoetan. Uztailaren aldean, salmentak %0,5 jaitsi dira urtaroen eraginik gabe.

Elikagaien salmentek %2,5eko gehikuntza eduki dute, eta gainerako salgaienak %0,4ko jaitsiera, aurreko urteko hil beraren aldean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

2019ko uztaiaren aldean, elikagaien salmentak %0,3 murriztu dira eta gainerako produktuenak %0,9, prezio finkoetan eta urtaroen eragina kontuan hartu gabe.

Lurraldeka, Bizkaian %2,7ko igoera izan da eta Araban %0,9koa, baina Gipuzkoa aldaketa gabe mantendu da, aurreko urteko hil berarekin konparaturik. Hori dena prezio finkoetan eta urtaroen eraginik gabe.

2019ko urtariletik abuztura arteko metatutan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak %2,0ko hazkundera izan du, igoera bat gertatu dena bai elikaduran (%2,2), bai gainerako produktuetan (%1,6). Positiboa da halaber eboluzioa

hiru lurraldeetan: Araba urteko metatua %1,3 hazi da, Bizkaia %2,3 eta Gipuzkoa %1,7, hori dena prezio finkoetan eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan.

Langile-kopurua Euskal AEko azalera handietan eta elikadura-kate handietan %1,1 gehitu da aurreko urteko hil beraren aldean, baina %0,2 jaitsi da aurreko hilaren aldean, uztailaren aldean, urtaro-eraginik gabe. Urtarriletik abuztura, metatua, langile-kopurua %2,3 hazi da 2018ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Abuztua. 2019

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,5	-0,5	2,0
Araba/Álava	0,9	-2,4	1,3
Bizkaia	2,7	0,0	2,3
Gipuzkoa	0,0	-0,5	1,7
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	2,5	-0,3	2,2
Beste produktuak	-0,4	-0,9	1,6
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	1,1	-0,2	2,3

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilerako arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62